

HIZKUNTZA ANIZTASUNA ETA HIZKUNTZEN HERIOTZA

1. Munduko hizkuntza kopurua

Munduan hitz egiten diren hizkuntzen kopuruari dagokionez ez dago erabateko adostasunik. Grimesek, (2000) bere *Ethnologue* hizkuntzen zerrendan, 6.800 hizkuntza aipatzen ditu. Bright-ek (1992), *International Encyclopedia of Linguistics* liburuan, 6.300 hizkuntza agertzen dizkigu; eta Unesco-ren *Arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlasaren arabera* (Moseley, 2010), munduan 6.700 hizkuntza hitz egiten dira.

Egia esan, hizkuntza kopuruari buruzko desadostasunak ulergarriak dira, kontuan hartzen badugu, askotan, zaila dela zehaztea hizkuntza baten aldaera bat hizkuntza den edo dialektoa. Beste era batera esanda: munduko hizkuntza kopurua aldatu egiten da hizkuntza bat zer den definitzeko erabiltzen diren irizpideen arabera.

Grimes-ek (2000), adibidez, Alemanian zazpi hizkuntza germaniar hitz egiten direla esaten du: luxenburgera, alsaziera, mochenoa, franciquea, walsera, zimbriera eta yiddisha; baina beste ikerlari batzuk diote zazpi hizkuntza horiek alemanaren aldaerak direla.

Luxenburgera, alemanarekin eta frantsesarekin batera, Luxenburgoko hizkuntza ofiziala bihurtu zen 1983. urtean, naiz eta orainsu arte alemanaren dialekto gisa onartua zegoen.

Meänkieli eta Yiddish hizkuntzak finlandieraren eta alemanaren aldaerak direla esaten da, baina nolabaiteko babes ofiziala duten hizkuntza gisa onartu ditu Suediako gobernuak.

Ikusten den bezala, ez da erraza zehaztea hizkuntza baten aldaera bat hizkuntza den edo dialektoa. Gainera, hizkuntzalarien irizpideen aurka edota gainetik, arrazoi historikoak, politikoak eta sozialak daude sarritan aldaera bat hizkuntza gisa hartzeko. Askotan aipatzen den Max Weinreichen aforismo honek ondo erakusten du arazoa: "Hizkuntza bat atzean armada duen dialektoa da"; alegia, hizkuntza baten hizlarien estatus politikoak erabakitzen du, hein hain batean, hizkuntza-ren estatusa.

Hizkuntzak definitzeko dauden arazo hauek guztiak ahaztu gabe, autore gehienak diote gaur egungo hizkuntza biziak 6.000 inguru direla (Crystal 2000, Nettle 1999, Comrie, Matthews and Polinsky 1996, Wurm 2001, Hagege 2000, Hale 1992, Krauss 1992).

2. Munduko hizkuntza aniztasunaren berezitasunak

Hizkuntza kopuruarekin batera, ikerlari gehienak bat datoz hizkuntza aniztasun honek bederatzi berezitasun dituela:

1. Hizkuntzak ez daude modu homogeneoan banatuta kontinenteetan barrena. 6.000 hizkuntza horietatik % 3 (200 hizkuntza) Europan hitz egiten dira, hizkuntzen % 32 (1.900 hizkuntza inguru) Afrikan, % 32 Asian (1.900 hizkuntza inguru), % 15 Ameriketean (900 hizkuntza inguru) eta Ozeano Barean 1.100 hizkuntza inguru, munduko hizkuntzen % 18 (Crystal 2000, Nettle 1999, Comrie, Matthews and Polinsky 1996, Wurm 2001, Hagege 2000).

2. Estatu batzuk beste batzuk baino hizkuntza gehiago dituzte. Berbarako, Papua Ginea Berrian 849 hizkuntza daude, Indonesian 672 edo Nigerian 413. Hiru estatu hauetan, munduko hizkuntza guztien %32 hitz egiten da. Aipatzekoa ere bada hizkuntza gehien dituzten estatuen artean ez dagoela Europar Batasuneko estaturik.
3. Munduko hizkuntza aniztasunaren hirugarren berezitasuna da, hamar milioi hiztun baino gehiago dituzten munduko hizkuntzak 70 direla.
4. 70 hizkuntza mintzatuena munduko biztanleen %75ak hitz egiten ditu, gainerako 5.930 hizkuntzek gizakien %25ak hitz egiten dituelarik. Beste berba batzuekin esanda, munduak 7.000 milioi biztanle dituela onartzen badugu, 5.250 milioi biztanlek 70 hizkuntza hitz egiten dituzte, gelditzen diren 1.750 milioi biztanlek 5.930 hizkuntzak hitz egiten dituztelarik.
5. 100 milioi hiztun baino gehiago dituzten munduko hizkuntzak 9 dira; horietatik 4 (errusiera, espainiera, ingeleza eta portugesa) europarrak direlarik. Alegia, Europan munduko hizkuntzen % 3 (200 hizkuntza) hitz egiten da, baina munduko 9 hizkuntza handietatik 4 eremu geografiko honetakoak dira.
6. Munduko hizkuntzen %4,8k baino ez du milioi bat hiztun baino gehiago.
7. 100.000 hiztun baino gehiago dauzkaten hizkuntzak % 16.2 baino ez dira.
8. Munduko hizkuntzen %59.4k (3.600 hizkuntza) ez ditu 10.000 hiztun.
9. Munduko hizkuntzen %30rak (1.800 hizkuntza inguru) 1.000 hiztun ere ez dauzkate.

3. Arriskuan dauden munduko hizkuntzen biziberritze-arrisku mailak

Autore gehienek arabera, 6.000 hizkuntza hauetariko asko hil egingo dira hurrengo urteetan (Junyent 1993, Hale 1992 eta Krauss 1992). Unescoren *Arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlasaren arabera* (Moseley, 2010), momentu honetan hitz egiten diren 6.700 hizkuntzetatik erdia inguru desagertu daiteke XXI. mendea bukatu baino lehen. Hain zuzen ere, atlas honetan, arriskuan dauden 2.498 hizkuntzen berri ematen da, bost biziberritze/arrisku mailatan sailkatuta:

1. **Salbu ez dauden hizkuntzak:** umeez hitz egiten dituzten hizkuntzak dira, baina esparru zehatz batzuetan bakarrik (etxean, adibidez). Guztira, 607 hizkuntza daude egoera honetan (arriskuan dauden hizkuntzen %24,3). Unescok dioenez, talde honetan dago euskara (Unescoren arabera, 660.000 eta 700.000 hiztun bitartean dauzka euskarak). Dena dela, Iparraldean euskararen egoera are eta kaxkarragoa da. Unescoren arabera, eremu geografiko honetan euskara arriskuan dago.
2. **Arriskuan dauden hizkuntzak:** umeez ez dute hizkuntza ikasten etxean. Orotara, 632 hizkuntza daude talde honetan (%25,3). Aragoiera (10.000 hiztun inguru) asturierara (150.000 hiztun) eta gaskoia (250.000 hiztun guztira, 3.841 Estatu espainiarrean) talde honetan kokatzen dira, eta zerbait egiten ez bada laster desagertu daitezke.
3. **Guztiz arriskuan dauden hizkuntzak:** aiton-amonen belaunaldiak hitz egiten du bakarrik, eta gurasoen belaunaldiak ulertu egiten du, baina beraien artean ez dute erabiltzen eta ez die seme-alabei transmititzen: 502 hizkuntza daude egoera honetan (%20,1)
4. **Desagertzeko zorian dauden hizkuntzak:** aiton-amonak eta belaunaldi zaharrenak dira hizkuntza dakiten gaztee-

nak, eta, gainera, oso gutxitan erabiltzen dute: 538 hizkuntza denetara (%21,5).

5. **Desagertutako hizkuntzak:** hiztunak desagertu egin dira: guztira 219 hizkuntza (%8,8).

4. Munduko hizkuntzak mehatxatzen dituzten arazo eta faktoreak

Aipatutako atlasean, hizkuntza bat arrisku maila batean edo bestean sailkatzeko, *Language Vitality and Endangerment* (2003) txostenean aurkezten diren 9 faktoreak erabiltzen dira¹. Alegia, txosten honen arabera, hizkuntzen bizi-indarrean 9 faktorek eragiten dute:

- Belaunaldien arteko transmisioa
- Hitzunen kopuru absolutua
- Hitzunen proportzioa biztanleria osoaren baitan
- Aldaketak hizkuntzaren erabileran
- Eremu berrietan eta komunikabideetan egiten den hizkuntzaren erabilera
- Hizkuntzak irakaskuntzan duen presentzia
- Gobernuen eta erakundeen politikak eta jarrerak hizkuntzarekiko
- Hitzunen jarrerak euren hizkuntzarekiko
- Hizkuntzari buruzko dokumentazioaren berezitasunak eta kalitatea

¹ Txosten hau nazioarteko aditu talde batek egin zuen 2002 eta 2003. urteetan, UNESCO-k eskatuta. Txostena 2003. urtean onartu zen, UNESCO-ren "Arriskuan dauden hizkuntzen babes" egitasmoaren baitan. Txostenak hizkuntzen bizi-indarra neurtzeko metodologia bat zehazten du, hizkuntzen beharrianak ezagutzeko, hizkuntza politikak bultzatzeko, eta, hizkuntzak babeste aldera, neurriak hartzeko.

Bederatzi faktore aipatzen dira txostenean, baina baita esaten da hauetatik lehen seiak direla garrantzitsuenak. Alegia, Unescoren *Arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlasaren arabera* (Moseley, 2010), munduko hizkuntzen erdia inguru desagertzeko arriskuan dago batez ere hizkuntza ez delako transmititzen belaunaldi batetik bestera, hiztunen kopurua (hiztunen masa kritikoa) murrizten ari delako, biztanleria osoaren baitan hizkuntza baten hiztunen proportzioa txikitzen delako, erabilerarekin arazoak daudelako, teknologia berrietan eta komunikabideetan hizkuntza erabiltzen ez delako eta hizkuntzak ez duelako presentziarik irakaskuntzan.

1. Irudia: hizkuntzen bizi-indarrean eragiten duten 9 faktoreak



Iturria: Language Vitality and Endangerment (2003) (www.unesco.org)

Bost urte aurretik egin zen *Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostenaren* (Martí et al, 2005) arabera ere, munduko hizkuntzen %46 desagertzeko arriskuan dago. Eta hori horrela da, hizkuntzen heriotza bultzatzen ari diren zazpi eratako arazoak eragiten daudelako:

1. **Arazo politiko eta militarrek:** kolonizazioak, konkistak, lurraldearen okupazioak, lurraldearen banaketa politikoak, okupazio militarrek, paramilitarren parte hartzeak, sunsiketak, genozidioak, masakreak, holokaustoak, errepresioak, mirabeen salerosketak, deportazioak eta bortxaz egindako lekualdatzeak, muga administratiboek sortzen dituzten gatazkak, giza eskubideen bortxaketak, mehatxu politikoak, diskriminazio politikoak,

barne politikaren egonkortasun falta edota barne gatazkak eta autonomia politiko falta. Aipatutako txostenaren arabera, gutxitutako hizkuntzen %5,1 desagertzeko arriskuan dago era honetako arazoengatik.

2. **Aldaketa soziokulturalak:** modernizazioa eta lurraldearen urbanizazioa, hezkuntzaren modernizazioa, beste kultura batzuen eragina, erlijioaren eragina, kultur autonomia falta, asimilazioa eta identitate kulturalaren galera, mendekotasuna, prestigio falta, gizarte bazterkeria eta degradazio soziala eta bizi-kalitate txarra. *Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostenerako* egindako ikerketaren arabera (Martí et al, 2005), gutxitutako hizkuntzen %10,9 arriskuan dago era honetako arazoengatik.
3. **Arazo ekonomikoek** ere eragin negatiboak dituzte hizkuntzengan. Talde honetan sartzen dira egitura ekonomikoen aldaketak, krisi ekonomikoak, txirotasunak, mendekotasun ekonomikoak, biztanleriaren gehiegizko zorrak, luraren propietatearen galerak, lur urritasunak, bizi-mailaren gutxitzeak, gehiegizko ustiaketa ekonomikoak edo langabezia. Aipatu ikerketaren arabera, gutxitutako hizkuntzen %6,3 arriskuan dago era honetako arazoengatik.
4. **Arrazoi demografikoak:** hiztunen kopuruaren gutxitzeak, jaiotza-tasen txikitzeak, biztanleriaren zahartzeak, ezkontza mistoek eta emigrazioari eta inmigrazioak eragin negatiboak dituzte hizkuntzengan. Gutxitutako hizkuntzen %14,3 desagertzeko zorian dago era honetako arazoren bat dutelako.
5. **Erakundeen babes edo laguntza falta:** hizkuntza asko ahultasun egoeran daude ofizialtasunik ez dutelako. Zehazki, hizkuntzen %21,4 gutxiagotuta dago erakundeetatik inolako babesik ez dutelako.

6. **Hizkuntzekiko jarrerei loturiko arazoak:** gutxitutako hizkuntzen %25,1ak arazoak ditu, hiztunen artean hizkuntzarekiko jarrera negatiboak daudelako. Hau da, hiztunek, bereziki hiztun gazteenek, beste hizkuntza batzuk nahiago dituztelako, hizkuntza gorrotatzen dutelako, hizkuntzarekiko ardura gutxi dutelako, hizkuntza esparru oso mugatuetan erabiltzen delako, zaharrek bakarrik erabiltzen dutelako edota transmisioa eten delako.
7. **Egoera linguistikoari loturiko arazoak:** elebitasuna eta diglosia, *lingua franka* bezala beste hizkuntza batzuk erabiltzeko joera, estandarizazio eta forma idatzien falta, dialektoen arteko gehiegizko banaketa, hizkuntzaren modernizazio falta, argitarapenen gabezia eta hizkuntzaren ordezkapena. Gutxitutako hizkuntzen % 16,8 ezin da behar bezala garatu eta bizi era honetako arazoengatik.

5. Ondorioa

Hizkuntza aniztasun izan da gure munduaren berezitasunetarikoa bat, eta horrek ezagutza sortzea eta, ondorioz, bizikalitatea hobegotzea ahalbidetu dio gizateriari. Hizkuntzak elkarrekin harremanetan sartzeko eta gure ideiak, emozioak, ezagutzak, oroipenak eta balioak adierazteko tresnarik garrantzitsuenak dira. Hizkuntzak nahitaezko bitartekoak dira kultur adierazpenerako eta ondare kulturala transmititzeko, eta beharrezkoak dira gizakien eta gizarte-taldeen identitaterako zein aurrerabiderako. David Crystal (2000) hizkuntzalariak zioen bezala, “*Hizkuntza batek herri baten oroimena, sentimenduak eta historia gordetzen ditu*”.

Hala ere, hizkuntzak desagertzen ari dira munduan. Orain arte bildu diren datuek bi ondorio nagusi ematen dituzte:

- Azken 30 urteotan, murrizten joan da munduan hitz egiten diren hizkuntzen kopurua (Sasse, 1992; Comrie, Matthews eta Polinsky, 1996; Wurm, 2001; Hagège,

2000). Unescoren arabera, 1950. urtetik 241 hizkuntza desagertu dira. Besteak beste, Australian sei hizkuntza desagertu dira, Brasilen 12, Txinan 9, Indonesian 10, Papua Ginea Berrian 10, Errusiar Federazioan 19 eta Amerikako Estatu Batuetan 53.

- Hizkuntza gehienetako hiztun kopurua gutxitzen ari da, eta txinera, ingelesa, espainiera edo bengalera bezalako hizkuntza handien hiztun kopurua, berriz, handitzen (Junyent, 1999; Dixon, 1997; Nettle, 1999; Moreno Cabrera, 2000).

Ikerlari askok diote hizkuntz desagertzea dela mende honetako arazorik larrietakoa (Hale, 1992; Krauss, 1992). Alegia, arrazoi asko dago pentsatzeko arriskuan, mehatxatuta edo gutxiagotuta dauden hizkuntza asko desagertu egingo direla XXI. mendean. Hizkuntza aniztasunaren betiko arazoak (arazo politiko eta militarrek, aldaketa soziokulturalak, arrazoi ekonomikoekin zerikusia duten arazoak, arrazoi demografikoek sortutako arazoak, instituzioen babes edo laguntza falta, hizkuntzekiko jarrerei loturiko arazoak eta egoera linguistikoari loturiko arazoak) zein hizkuntzen bizi indarrean eragiten duten faktoreek (transmisioa, hiztun kopurua, hiztunen proportzioa, erabilera, eremu berrietan eta komunikabideetako erabilera, irakaskuntza, gobernuen eta erakundeen politikak eta jarrerak, hiztunen jarrerak eta hizkuntzari buruzko dokumentazioaren berezitasunak eta kalitatea) hizkuntza askoren heriotza, homogeneotasun kulturala eta hizkuntza gutxi batzuen gain hartzea ahalbidetuko dute.

6. Bibliografia

- Bright, W. (1992) *The international encyclopedia of linguistics*. Oxford eta New York: Oxford University Press.

- Comrie, B., Matthews, S. eta Polinsky, M. (1996): *The Atlas of languages. The origin and Development of Languages Throughout the World*. New York: Facts On File.
- Crystal, D. (2000): *Language Death*. Cambridge University Press, United Kingdom.
- Dixon, R. M. W. (1997): *The rise and fall of languages*. Cambridge. Cambridge University Press.
- Grimes, B. F. (ed.) (2000) *Ethnologue: Languages of the world*, 14th edition. Dallas: Summer Institute of Linguistics.
- Hagège, C. (2000): *Halte à la mort des langues*. París: Éditions Odile Jacob [2002. No a la muerte de las lenguas. *Barcelona: Paidós*].
- Hale, K. (1992): “Endangered Languages” en *Language* n° 68-1, pags. 1-48.
- Junyent, C. (1993): *Las lenguas del mundo. Una introducción*. Octaedro, Bartzelona.
- Junyent, C. (1999): *La diversidad lingüística. Didáctica y recorrido de las lenguas del mundo*. Octaedro argitaletxea, Bartzelona.
- Kraus, M. (1992): “The World’s Languages in Crisis” en *Language* n° 68-1, pags. 4-10.
- Martí et. al (2005): *Words and Worlds*. World Languages Review. Multilingual Matters, Erresuma Batua.
- Moreno Cabrera, J. C. (2000): *La dignidad e igualdad de las lenguas. Crítica de la discriminación lingüística*. Madrid: Alianza Editorial.
- Moseley, C. (ed.) (2010): *Arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlasa*, 3. argitalpena. Paris, Unesco Argi-

talpenak. On-line bertsioa: <http://www.unesco.org/culture/languages-atlas/es/atlasmap.html>

- Nettle, D. (1999): *Linguistic Diversity*. New York: Oxford University Press.
- Sasse, H.J. (1992): "Theory of language death" in Brenzinger, M. (Argit.): *Language Death: Factual and Theoretical Explorations with Special Reference to East Africa*. Monton de Gruyter, New York.
- Unesco (2003): *Language Vitality and Endangerment*. Paris, (www.unesco.org).
- Wurm, S. A. (2001): *Atlas of the world's languages in danger of disappearing*. Paris-Camberra: UNESCO Publishing / Pacific Linguistics.

Patxi Juaristi